


Elefanteak epaile eta borrero

NINIVE (EGUNGO IRAK), XII. MENDEA. Petachiach Ratisbonako errabinoa Mesopotamia iparraldean bidaiatzen ari zela, exekuzio berezi baten lekuko izan zen: “Niniven bada elefante bat. Handia da eta otordu bakoitzean bi gurdi lasto jaten ditu gutxi gorabehera. Sultanak norbait heriotzara kondenatzen duenean, elefanteari esaten dio: ‘Pertsona hori erruduna da’, eta elefanteak ezpainaz (sic) akusatua jaso eta hil egiten du”.

Duela 4.000 urte inguru bururatu omen zitzaizen gizakiei elefantea arma hilgarritzat erabiltzea. Erromatarrek, kartagoarrek eta mazedoniarrek noizbehinka erabili zuten metodo hori. Baina elefante asiarrak afrikarra baino errazagoa da etxekotzen eta, horregatik, nagusiki Asian findu eta hedatu zen teknika.

Exekuzio horiek agintarien boterearen sinbolo ziren; erregea piztiarik handiena bere menpe atxikitzeko gai bazen, bizitza eta heriotza nahieran administratzeko gai ere izango zen.

Kontinentearen mendebaldean exekuzioa nagusiki elefanteak kondenatua tronpaz zanpatzean zetzan, errabino bidaiariak azaldu bezala. Baina Asiako hegomendebaldean agintariak irudimen handiagoa zuten: krimena larria ez bazen, elefanteak kondenatuaren burua edo sabelaldea zanpatzen zuten hankaz, eta herio-



XVIII. mendearen erdialdeko irarlana, elefante bidezko exekuzioa irudikatzen duena.

gisa ere erabili izan ziren: akusatua frogatu ezin zitekeen krimen baten erruduntzat bazuten, elefantearen aurka borrokatzera eramaten zuten. Akusatua bizirik ateraz gero, hau da, unibertsoa astro guztiak haren alde lerrokatzen baziren eta hiltzeko bereziki trebatutako elefantea nagia erabat jota bazegoen, errugabetzat jotzen zuten. ■

tza berehalakoa zen; baina laidoa larritzat joz gero, hil aurretik kondenatuari oinazea eragiteko bide bihurriagoak erabiltzen zituzten.

Esaterako, elefanteari marrazak jartzen zizkioten letaginetan, eta horretarako bereziki trebatutako ugaztun handiak kondenatua pixkanaka ebakitzen zuten. Marrazarik erabiltzen ez zenean, ikuskizuna ez zen hain odoltsua, baina zigortuari tronpaz eusten zion bitartean hankaz haren hezurak txikitzeko gai zen elefantea. Metodo horrekin pakidermoak kondenatuaren gorputz atalak erauzi eta ikusleen odol gosea ase zezakeen. Indian beste teknika bat zuten gogoko: kriminala elefantearen atzeko hanketara lotzen zuten, eta animaliak herrestan eramaten zuten. Kondenatuak nahikoa sufritu zuela erabaki ondoren, elefanteari atzerantz ibiltzeko agintzen zioten, eta kito.

Baina elefanteak ez ziren beti borrero hutsak, eta ordalia



Arrastoak

200 urte *Harrotasuna eta aurrejuzkuak* argitaratu zutela



200 URTE bete dira *Harrotasuna eta aurrejuzkuak* nobela ezaguna lehenengoz argitaratu zenetik, eta urte batzuk gehiago Jane Austenek (irudian) idatzi zuenetik. 1797an amaitu zuen Austenek nobelaren lehen bertsioa, 21 urte zituela. Idazlearen aitak editore bati eskaini zion lana, baina hark uko egin zion argitaratzeari. 1813an,

nobela berrikusi eta izenburua aldatu ondoren, Thomas Egerton editoreak erosi zituen eskubideak 110 liberaren truke, Austenek 150 eskatu arren. Lehen edizio hartan ez zen egilearen izenik agertu, ezta Austen hil artean ateratako gainerako edizioetan ere. 200 urtetan nobelaren hogeita milioi kopia gora saldu dira. ■